

FUNTSEZKO JARDUERAK

Umezurtz-eskolan aurkitzen diren umeak eta tutoreak laguntzeko ezinbestekoa da funtsezko jarduera batzuk egitea haien ahoa osasuna eta bizi-kalitatea hobetzeko.

“Bezeroarekiko harremana” esparruan Kenian egunero garatuko ditugun ekintzak azaldu ditugu. Gogorarazteko, han burututako ekintzak bi taldetan sailkatu ditugu: alde batetik, tutoreekin egingo ditugun ekintzak (hemen azalpenak modu sakonago baten bitartez emango dira) eta beste aldetik, umeekin burutuko ditugun ekintzak. Ekintza hauek modu dinamiko batean egingo ditugu, umeak informazioa barneratzeko modu egokiena jolasak, eskulak... egiten delako.



Umeekin egingo dugun jardueretako bat aho eta hortzen eskuil-kit bat egitea da. Horretarako, izara, errotulatzailak, josteko haria eta orratza beharko ditugu. Ekintza hau oso garrantzitsua izango da, eskuila leku “esteril” batean gordetzeko eta mikroorganismoetatik ekiditeko. Gainera, ekintza hau gaixotasunetatik prebenitzeko aukera egoki bat izango da.

Umeekin egingo dugun beste ariketa bat eskuilatzeko teknika egokia azaltzea izango da, modu dinamiko baten bitartez. Horretarako, fantoma eta eskuilak erabiliko ditugu. Praktika honen bidez hortzaginak garbitzeko teknika egokia ikasiko dute.



Bestelako ekintzak ere burutuko ditugu, hala nola, abesti ezberdinak irakatsiko dizkiogu txantxarrak ekiditzeko, gaixotasunetatik prebenitzeko etab. Aho eta hortzen inguruko puzzleak, liburuak, eskulanak eta bestelako jolasak ere eramango ditugu.

Tutoreekin egingo ditugun ekintzak modu sakonago batean azalduko diegu. Hau da hitzaldien bitartez zer nolako arriskua izan ahal duen higie txar bat izatea azalduko diegu. Baita ere, ahoa eta higiearen inguruko gaixotasun ezberdinak eta haien etiologia eta nola prebenitu ahal diren azalduko diegu.

Azalduko diogun informazio guztia ez ahazteko haiekin liburu bat egingo dute, guk ez gaudenean ez ahazteko.

